

Herritarrek

2013ko iraila

# INFORMATZEN

Udalgintza informazioa 2011-2015

9.alea

[www.berastegi.com](http://www.berastegi.com)



## HIRIGINTZA

1. Ategiko eremua: Foru Aldundiak atzera bota du proiektua, legea bi puntutan guk ez bezala interpretatzen zutela eta. Irailaren 24an bildu ginen udal ordezkariok Pello Gaskon Foru Aldundiko Lurralde Antolaketako zuzendari nagusiarekin eta bertako teknikariekin, eta guk geure postura eta argumentuak azaldu ondoren, konbentzitu samar utzi genituela irudituta atera ginen. Bi aste barru erantzungo omen digute.



2. Irisgarritasun-plana: Martxan dira zenbait diru-laguntza irisgarritasun-planak (espalo, zebra-bide, pasabide eta abarrak zehazten dituztenak) gauzatzeko. 2004an herrirako egin zen plana gaurkotuko da, eta urriaren 14ra arteko epea dago deialdira aurkezteko. Plana prest denean, guztiz onartu aurretik jendaurrean aurkeztuko da, herritarren proposamenak bertan txertatzeko asmoz.

3. Aldaketak ordenantzetan: Ordenantzak herriaren ezaugarrien arabera moldatzeko beharra ikusi da, eta bi puntutan aldaketak egingo dira: bat, belazeetako itxurak bidetik metro erdira egin beharko dira (kamioi handiek-eta bideetatik ibiltzeko arazorik izan ez dezaten), eta, bestalde, bide ondoko arbolek pasabidea oztopatzen badute eta jabeek kentzeko ardura hartzen ez badute, herri-langileek adarrak mozteko aukera izango dute; eta, bi, txabolak eraikitzearen inguruko araudia ere moldatu egingo da (belaze txixixeagoetan ere hegaztiak zein baratza jarri nahi duenak berau aterpe batekin jartzeko aukera izan dezan). Udalaren web-orrian izango duzue ordenantzei buruzko informazio guztia.

4. Udaletxearen iparraldeko fatxadaren konponketa-lanak: Leihoetatik filtratutako urak eginiko kalteak konpontzen ahalik eta azkarren hasiko dira. Kostua 20.000 eurokoa da, Foru Aldundiak obra amaieren emango duen dirutik hartuko da, eta GOITU enpresak egingo ditu lanak.

## UDAL FUNTZIONAMENDUA

5. Langile-kontratazioa: Foru Aldundiaren eta Udalaren ekimenez, herri-lanetan aritzeko langilea kontratatuko da. Lanaldia bost hilabetekoa izango da, eta izena emateko epea irailaren 24tik urriaren 4ra bitarte izango da udaletxean. Aurrez zehaztutako puntuaketa baten arabera aukeratuko da langilea.

## HONDAKINEN KUDEAKETA

6. Auzokonpostagailuaren ezarpena: Esan bezala, udaletxearen iparraldeko eremua egokituko da auzokonpostagailua ezartzeko. Proiektua egina du Udaleko arkitektoak, eta herriko kontratistei luzatuko zaie deia, lanen esleipena egin ahal izateko.



## ESKUALDEKO BERRIAK

7. Tolosaldeko Komunikabideen Taldea (TKT) martxan: Hitza, Galtzaundi eta Txolarre irriaren bategiteetik sortu den taldea datorren hilean ekingo dio bere ibilbideari: urriaren 4an argitaratuko da paperezko 0. alea, eta urriaren 6tik aurrera, Kilometroak jaiarekin batera, estreinatuko da webgunea. 28 kanala telebistak, momentuz, uko egin dio taldeko partaide izateari.



# MOTZEAN

8. Elduako markesina eraikitze-lanetan: Herri-langileak ari dira dagoeneko elduarrentzat autobus-geltokia egiten.

9. Buzoiak berrituko dira: Tolomendiko diru-laguntzak onartuak izan dira, eta gastuaren %30 aurreztu ahal izango du Udalak. Beraz, hondatuta dauden buzoiak antzeman, zenbatu, eta konpontzeari ekingo zaio.



10. Kaleko argiteria eraberritzeko diru-laguntzak: Foru Aldundiak gastuaren %65etik %75era arte hornitzen duten laguntzak emango ditu, eta udalek 2014ko abendura arteko epea izango dute inbertsioak egiteko. Eusko Jaurlaritzak ere baditu diru-laguntzak Aldundiarenekin bateragarri direnak. Beraz, Udalak egingo du proiektua, eta deialdira aurkeztu ere bai.



11. Larrialdietarako etxebizitza mediku-etxean: Larrialdi egoeraren batean aterpe beharrean gertatzen den edozein herritarrentzat etxebizitza egokituko du Udalak mediku-etxe goiko solairuan. Gelak hustu, garbiketa egin, eta bizitzeko gutxienekoa izango duen etxebizitza bat prest jartzea da Udalaren asmoa.

12. Union Fenosa enpresaren zorrak Berastegiko Udalarekin: Gasa eta argindarra pasatzeko lur publikoa erabiltzearen truke, diru-kantitate bat ordaindu behar izaten die enpresek udalei. Hala, Union Fenosa enpresak, orain arte egin ez badu ere, 30.000 euro inguru ordaindu beharko dizkio urtero Berastegiko Udalari, herri-lurren erabilpenagatik. Horren harira, azken 5 urteetako ordainketak ere exijitu ahal izan dizkio Udalak enpresari, eta guztira 131.000 euroko sarrera izan du.

## KULTURA

13. Mintzalaguna proiektua: Irailaren 23an bildu zen taldea, martxan nola jarri erabakitzeko. Talde bakarrean eta astean behin elkartuko dira momentuz, eta inork beraiekin bat egin nahi badu, taldea irekia izango dela jakinarazi dute.

14. UEMA: Jakina denez, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean sartzeko asmotan da Udala. Ohiko batzar orokor bidez onartuko da sartzea Udalean, UEMAk abenduan egin ohi duen batzarra baino 15 egun lehenago. Urtean 5.907 euroko kuota ordainduta, UEMako kide izateaz gain, hainbat zerbitzu izango ditu eskura Udalak: udal funtzionamendua euskalduntzeko, ohiko udal agiriak eta txostenak euskaraz izateko, udalerria euskalduntzeko, udalerri euskaldunen arteko loturak indartzeko etab. Aurkezpen egunean, kide baten hitzaldia eta hainbat tailer izango ditugu, UEMA zer den hobeto ezagutzeko.



UDALERRI  
EUSKALDUNEN  
MANKOMUNITATEA

15. Jaien balantzea: Ona izan da Salontzoek utzitako balantzea. Beste behin ere, herritarren jaiak izan ditugu, herritarren parte hartzearekin eginak, eta parte-hartzaile guztiei eskerrak eman nahi dizkie Udalak. Jaien kostua 14.168 eurokoa izan da. Elduako amabirjinetan, berriz, 1.925 euro gastatu dira.



16. Luis Erasoren artelanak udaletxean: Erakusketako lan bat erosi egin du Udalak, udaletxe eraberritua apaintzeko asmoz. Beste zenbait artelan ere, erakusketan izandakoak, udaletxeko hainbat txokotan izango dira ikusgai hemendik aurrera, eta interesa duenak erosteko aukera izango du.

17. 2013ko Kultur Astea: Urriko azken asteburuan (24, 25 eta 26an) eta azaroko lehenengoan (31, 2 eta 3an) egingo da aurtengo Kultur Astea. Hitzaldi, bertso- eta musika-emanaldi, antzerki eta joko artean, azaroaren 3an izango den azoka egunak aparteko garrantzia izango du aurtengoan ere.